

NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

Aragoi ibaia Zarrakaztelun




Mota: Ibaia | Kokapena: Zarrakaztelu

Presak batek sortutako bainu-eremua Aragoi ibaian. Ingurune pribilegiatua da, eta zuhaitz handiak ditu. Presak 300 metroko zabalera du, eta ibaiak ura dakarrenean ur ikuskizun polita eskaintzen du. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) ohartarazi du eremu horretan uraren maila bat-batean aldatzen dela, eta, beraz, arriskutsua dela. Ibilaldi bat egin daiteke Zarrakazteluraino ibaiaren ertzetik, eta ibaiertzeko basoa eta bertan bizi diren hegaztiak ikusi. “El estrecho” deituriko lekuan, bidea amilburu baten azpitik igarotzen da, eta bertan lur jausiak izan ohi dira euria egiten duenean; beraz, kontuz ibili behar da.

Ekipamendua: Eremuak askaldegia, erretegiak, mahaia, aukia, zabuak eta paperontziak ditu. Ez du komunik.

Sarbidea: Zarrakaztelu herrigunean gaudela, San Frantzisko Xabier kaletik abiatuko gara amaieraraino. Han, bide bat hasten da, eta hortik ibiliko gara 3,5 km-an, ibaiaren ondotik, ezkerreko irteerara heldu arte (baranda granatea du). Eskuinetara, metro gutxi batzuetara, askaldegia dago, eta ibairantz jaitsita, autoa zuhaitzen artean aparka daiteke.



[Nola iritsi](#)